Sarrera

Orain dela 30 urte argitaratu nituen ARGIA astekarian hiru artikulu erleekin solas egiten zuen kazetariaren itxuran. Artikulu haietan oinarrituta daude liburuxka honetako hiru atal, ordukoak zerbait aldatuta bada ere. Liburuxka honetako kazetariak horregatik jarraitzen du ARGIA PRESSekoa izaten, hogeita hamar urte zahartu den arren. ARGIA PRESSen aldaketa sakonak izan ziren orduan eta eten egin behar izan zituen artikulu mota haiek. Laster erretiroa hartuko duela eta, zuzendariak bere azken lan bezala berriro ekitea agindu dio. Gaztetako gaiei berriro ekiteak norbera ere gaztetu egiten du eta gogo onez eta pozik ekin dio.

Erleen munduak beti harritu du gizakia, izanik hain animalia txikiak nola egiten duten hain abaraska perfektua, nola hainbeste izanik ere lana hain ondo antolatzen duten. Gizartearen islaz, garai batean pentsatzen zuten izango zela bertan erregeren bat. Geroz jakin zen emea zela, «erregina» deitu izan zaiona, erladiko eme emankor bakarra.

Ez da erleen bizitza harridura sortzen duen bakarra, jende helduen artean harridura sortzen du entzuteak, baita ere, erleek ez dutela entzumen-organorik, usaimena anteretan daukatela edo arnasa ez dutela ahotik hartzen. Harritzen diren horiek eskolan urte asko igarotakoak izan arren, gai horiek ikusi gabe irten ziren nonbait.

Beste aziendekin konparatuz, ez dago dudarik, harrigarria gertatzen da erleen bizitza. Behi, ardi edo behorrak gure oso antzekoak dira. Haiei buruz jakiten diren gauzak normaltzat jotzen ditugu. Dituzten ohitura edo gaixotasunak gureen antzekoak dira. Noski, aldea nabaritzen diegu, baina esan genezake artzain batek dena dakiela bere ardiei buruz. Baina erlezainen artean, ematen du beti falta zaigula informazioren bat gure erleen jokabideak ulertzeko, erlezaina beti ari da zerbait berria ikasten.

Asko ikertu da erlea eta informazio izugarri metatu da haren gainean. Gizakiak zerbaiti etekina atera nahi dionean, buru-belarri jartzen da eta ez du bakerik berak nahi duena lortu arte. Etekinaz aparte, milaka indibiduoren antolaketak bultzatu du hainbat eta hainbat ikertzaile jakin-minez erleak, inurriak edo termitak aztertzera.

Gutxi gorabehera duela 150 urte, Filadelfiako L. L. Langstroth izeneko apaiz batek (1852) erlezaintza osoa aldatuko zuen aurkikuntza bat egin zuen. Konturatu

zen erleek bizi diren zulo edo erlauntzeko sabaian itsatsita beren abaraskak egiten dituztenean, abaraska batetik bestera beti tarte bera uzten dutela, bi erle parean pasatzeko adinakoa.

Horri horrela, berehala otu zitzaien erlezainei erlauntzeko sabaian listoi batzuk jartzea tarte hori errespetatuz. Erleek listoiei jarraituz egiten dute beren abaraska eta horrela listoiari gorantz tiraz, abaraskak atera ditzakegu banan-banan eta abaraska horretan zer gertatzen ari den aztertu.

Horren harira abaraska bakarreko erlauntzak ere sortu zituzten, alde biak kristalezkoak zituztenak eta kristaletik ikus zitekeen erleen bizimodua: erregina erruten, langileak (inudeak) larbak elikatzen, kanpotik etorritako erleak beren senideei dantza bidez janaria non zegoen adierazten, erregina berriak jaiotzen, eta abar, eta abar. Haien bizimodu osoa ikus zitekeen. Karl von Frisch zoologo austriarraren ikerketak mugarri izan ziren. *Erleen bizitza* liburua 1957an argitaratu zuen.

Erlezainak, beraz, gaur egun informazio asko du eta gai da erleen jokabide asko ulertzeko, badaki, esate baterako, noiz dauden haserre, noiz ari diren eztia edo polena biltzen, noiz diren gose, noiz gaixotasunak gaina hartu dien, zenbat urte dituen erreginak, noiz ari diren erregina berriak sortzen…

Euskal Herrian, Hegoaldean bederen, lurralde guztietan daude erlezain-elkarteak eta urtero antolatzen dituzte ikastaroak erlezaintzan ikasteko. Ikastaroak maila desberdinetakoak izaten dira, hasiberrientzat batzuk, aurreratuagoak besteak: erreginagintza, erle-produktuen elaborazioa…

Eskuetan duzun liburuxka honetan, bada, ez duzu aurkituko nire kabuz egin dudan aurkikuntzarik. Erlezain soil bat izan naiz nire bizitzan. Beste erlezainei erakutsi beharraren poderioz, erleen berri ikasi behar izan duena. Besteek egindakotik bizi izan naiz.

Helbururen bat izan badut liburuxka hau idaztean, irakurlea liluratzea izan da, alde batetik. Bestetik, berriz, irakurri ahala galderak sortzea kazetariaren larruan sartuz. Ziur naiz hasieran kazetariak zuen informazioa baino gehiago izango duela irakurleak eta zenbait gairen gainean galderak ere badituela. Irakurri ahala, espero dut, argitzen joango zaizkiola batzuk eta, espero dut, berriak sortuko.

Solasean jarri ditut erle, landare, erlezain eta kazetariak. Denek dakite zerbait eta denak dira ezjakin zerbaitetan. Egia horrela dago banatua mundu honetan. Liburuxkan zehar agertzen diren informazioak egiazkoak dira, nahiz eta zientzia-fikziozko pertsonaien ahoetan agertu. Fikzioaren eta errealitatearen arteko konparazioa egin nahi duenak jo beza liburuaren bukaeran dagoen glosariora.

Ez da, ordea, erleei buruzko informazio osoa, ez eta gutxiagorik ere, elkarrizketaren hariari jarraituz xehetasun askoren galdera sortzea erraza ez delako.

Milioika urtetan pilatu den informazioa gure geneetan dugu bizidun guztiok. Gene horien informazioa gure egunerokotasunean bistaratzen denez, gai gara gizakiok iraganean gertatu zenaz zentzuzko hipotesiak egiteko. Liburu honetan landareen eta erleren arteko loturei buruz egiten diren iruzkinak ere biologoen artean ontzat ematen direnak dira.

Dudazko zerbait aipatzekotan kazetariarena izango litzateke. Ba ote dago kazetaririk hain apetatsu behin eta berriz erleen bizitzari buruz arduratzen denik? Eta horrelako lanetara bere langileak bidaliko dituen egunkaririk? Baiezkoaren alde egin beharko da apustu. Kasu honetan zorte handia izan dugu.

Liburuxkan ez da falta erleen desagerpenari buruzko aipamenik. Erleak eztia, polena, propolia, jelea , argizaria eta pozoia ematen dizkigu. Hobeto esan, gai horiek kentzen dizkiegu. Baina mila bidez mesede gehiago uzten diote ingurumenari eta gure uztei, egiten duten polinizazioari esker. Gizarte osoaren begirunea merezi dute, bada, erleek eta beren zaindari erlezainek.

Erleen desagerpenaren arrazoietako bat aipatzen da, pestizidak sortzen ari diren kutsadura, hain zuzen. Erleek loreen nektarretan dagoen pestizida xurgatu eta hil egiten dira. Erleen galera, bada, gure ingurumenaren eta janarien kalitatearen adierazle bat da, erleak hiltzen dituzten pestizidak gure janarietan agertzen baitira gero. Ez genituzke erlezainen SOS deiak txantxetan hartu behar.

Urrutira heldu naiz oraingoan, hasi naiz erleen bizitza misteriotsuaz hizketan eta haien heriotzaz bukatu dut, erlezainen aldeko propaganda eginez. Barkatuko didazue, baina, ez ditut nire bizitzako urterik onenak sentsibilizazio-lan horretan alferrik pasa.

Erleen bizitza azaltzeko kazetariaren eta erle, landare edo erlezainaren arteko elkarrizketa modua erabili dut. Aspaldiko ohitura da gure artean. Hor ditugu J. A. Mogelen *Peru Abarka*, Duvoisinen *Erleez* edo gure ume-garaian baserri-giroan La Voz de Guipúzcoa irratian entzuten genituen Joxe Miel (Zurutuza) eta Don Antonio (Onaindia)ren arteko elkarrizketak.

Zer alde praktiko topa diezaioke irakurleak gai hau elkarrizketa moduan egoteari? Eskoletako irakasleak datozkit burura. Sarritan esaten da ikasleak entzule huts direla ikasgelan, agian, liburuxka honek zerbitza dezake ikasleak gelan elkarrekin solasean jartzeko. Ez da erleena gai transzendentala, baina bai polita une alai bat igarotzeko, bidenabar zientzia-kontzeptu franko landuz. Ea funtzionatzen duen.

Martxel Aizpurua

Unai Aizpurua

Lehenengo bisita: Erregina alargun

Goizeko hamaikak dira, eguzkia berotzen hasia da erreka-lainoa desegin ondoren. Han egon gara sahats-lore batean ezkutatuta gure erle bitartekoa noiz etorriko zain. Zun-zun-zun hotsa eginez heldu da azkenean eta elkarri egun ona opa ondoren, bizkar gainean zangalatrau, erlauntz aldera abiatu gara.

Bidean ehunka erle agurtu dugu nektar edo polen bila zihoazenak. Gure norabidean datozenak neketsu datoz, karga-karga eginda.

Erlauntzera heltzean alto eman digu atezainak. Antenen bidez usaindu gaitu eta ni nor naizen galdetu dio bitartekoari. ARGIA-PRESSeko kazetaria naizela esanda pasatzen utzi gaitu.

Ezker-eskuin erleak lan eta lan, bakoitza bere lan berezituan. Hemen ez da langabeziarik nabari. Zuzen-zuzen erreginaren aurrera eraman gaituzte. «Egun on, Erregina txit agurgarria!». «Egun on! Zu al zaitugu gure berri emateko asmotan etorri behar zuen kazetaria? Galdetu bizkor-bizkor, lanean jarraitu behar dut eta».

Harrigarri suertatzen da erregina bati lanpetua dagoela entzutea, baina benetan esan duela dirudi eta ekin diezaiogun bizkor elkarrizketari.


K.— Hitz gutxitan, zer da berorrentzat erlauntza?

Err.— *Nire erreinua*, hobeto geratuko da *nire erleen etxea* dela esanda. Erreginarik gabe erlauntza ez da ezer, ordea, ni naiz hemengo ardatza. Luis XIV.ak («Estatua ni naiz») bezala lasai esan dezaket «Erlauntza ni naiz». Ez da *Erle-Herri*rik erreginarik gabe.

Erregina jantzia dirudi, historia ere badaki.

K.— Gure irakurleek gustura jakingo lukete erreginaren bizimoduaren berri.

Err.— O! Aukera paregabea ematen didazu martxan daukagun ume gehiago sortzeko kanpainaren berri emateko. Erregina guztiok sinatu dugu agiri hau. Begira, nik ezkondu nintzenetik ez dut beste lanik egin, errun eta errun, hau da, arrautzak egin eta egin. Eztei-bidaiatik itzuli nintzenetik ez naiz etxetik atera. Hogeita lau orduz aritzen naiz erruten, uda partean egunean 1.500 edo 2.000 arrautza eginez. Jabetuko zara zergatik nagoen ume asko egitearen alde.



Skeeze / Pixabay

K.— Gure artean haur bat edo bi bakarrik ditu familia bakoitzak. Etxetik kanpora lan egiten dute aitek eta amek. Eta zaila dago haur gehiago izatea. Gure estatuko erreginaren kasuan, berriz, ez dut uste lan handirik egiten duenik, ez etxean, ez kanpoan, eta hala ere bi bakarrik ditu.

Err.— Bi haur familiako! Ez da ulertzekoa! Gainera kolpe zorririk jotzen ez duen erreginak ere bi bakarrik! Badute guregandik zer ikasirik.

K.— Kontuan izan behar du berorrek gu batez beste 60 urte bizitzen garela eta haur gutxi horiekin ere mundua bete-bete egin dugula.


Err.— Ai, ai, hirurogei urte**!** Ez nuke bizi nahi 60 urte, arrautzak egin eta egin.

K.— Eztei-bidaiarekin ari zen berori. Atrebentzia handia ez bada, nola gogoratzen du berorrek garai hura: eztei-eguna, eztei-bidaia…?

Err.— Zoragarria izan zen! Erregina izendatu berria nintzen, odol-ezteiak igaro ondoren…

K.— Barkatu, maiestate! Zer da odol-ezteia?

Err.— Erreginagai bat baino gehiago izaten dira. Horregatik lehen jaiotzen denak beste guztien habiak apurtzen ditu besterik jaio ez dadin. Ordurako besteren bat jaio bada, hil arte borrokatzen dira, bat bakarrik geratu arte. Hortik dator *odol-eztei* izena. Horrelakoak izan nituen nik ere lehen egunak.



Erregina-habiak.

K.— Eskerrik asko, azalpenarengatik. Eztei-bidaiaz ari ginen.

Err.— Eder eta lirain nengoen hegal berri zoragarriekin. Eguerdiko eguraldi onarekin irten nintzen eztei-bidaiara.

K.— Lehenik ezkontza izango zen. Nolakoa izan zen?

Err.— Ez, guk lehendabizi eztei-bidaia egiten dugu eta gero ezkondu.

K.— Nola da hori?

Err.— Bailarako senargai guztiak leku jakin batean neuzkan zain, 4.000 edo baziren. Hara hurbildu nintzen eta ikusi nindutenean atzetik nituen denak. Ederrenarekin «aireratu» nintzen.

K.— Ez da erraza suertatzen erleon hizkuntza ulertzea. Zer esan nahi du «aireratu» horrek? Barka berriro.

Err.— Hau eten beharra, gizona! Ez da erraza erleen berri zuei ematea, demontre! Fin esanda, zuek, uste dut, «oheratu» esaten duzuela, baina guk airean egiten dugunez «aireratu» esaten dugu. Esan nezakeen «larrua jo» ere, baina guk larrurik ez dugunez… Zer nahi duzu esatea, «kitina jo»? «Kopulatu» litzateke egokiena.

K.— Eskerrik asko. Eztei-bidaiarekin ari ginen.

Err.— A, bai! Oraindik gogoan ditut nire senar maiteak: Goxo, Xakil, Moñoño, Xurrumurru, Mixto, Auzo, Drone… Ez zaizkit ahazten haien aurpegi alaiak nirekin kopulatzean eta ondoren, indar guztiak galduta, nirekin kateatuta, lurrerantz erortzerakoan, «Ni errege naiz», «Ni errege naiz»… errepikatuz. Oraindik entzuten ditudala iruditzen zait.

K.— Maiestate, hainbeste senar izan al ditu berorrek, eta denak batera?

Err.— Bai, jaio ondorengo hamabost egunetan hamarren bat eztei-bidaia egin nituen. Aldiro bakarrarekin kopulatzen nuen, jakina, baina etxeratu aurretik hil egiten zirenez, hamar bider irten nintzen eztei-bidaiara. Hamarrekin edo, ez naiz gogoratzen azkenean zenbat izan ziren, kopulatu ondoren, denak hil egin zirenez, etsipenez itzuli nintzen erlauntzera eta harrezkero ez naiz gehiago irten ezertara. Alargun naiz.

K.— Berorren erreginaldiaren lehen uneak eta ondorengo bizitza gogorrak iruditzen zaizkit benetan, maiestate: Odol-ezteiak lehendabizi, gero hainbat senar hiltzen ikustea eta gero ilunpe honetan bizi osoa igarotzea. Ikaragarria deritzot.

Err.— Bai, halaxe da. Ondorengo egunetan ere hemen bizi izan ziren nire senargai asko. Bakean uzteko esan nien langileei. Hala bizi izan ziren udazkenera arte nire alaben kontura, jan-da-lo. Garai horretan jarri zieten «alfer» izengoitia, zangano batzuk zirelako. Nire aurrean, ordea, *erlamando* deitzen zieten, handiak zirelako.

K.— Eta udazkenean zer pasatu zen?

Err.— Nire alaba langileak taldeka antolatu ziren eta erlamandoengana hurbilduz bultzaka eta hozkaka erlauntzetik kanpora bota zituzten. Haien intziri, garrasi eta aieneak alferrik izan ziren. Alabei galdetu nien zergatik egiten zuten hori dena eta erantzun zidaten beldur zirela neguan denentzat nahikoa jan ez ote zen izango. Nire ustez, burua galdu zuten nire alabek, udazkeneko gorputzaldi txarrak, nonbait. Negu osoa arrik gabe pasa genuen. Triste xamar pasa genuen, egia esan. Erlamandoek ez zuten lanik egiten, baina jai-giro alaia jartzen zuten erlauntzean.

K.— Gogorra ama batentzat anaia eta seme guztiak galtzen ikustea, baina ez al zuen berorrek ezer egiterik batzuk behintzat salbatzeko?

Err.— Begira, nire koroazioan zin egin nuen erlauntzeko kudeaketa langileengan utziko nuela eta orain eskuak loturik ditut.

K.— Semerik ezin al du berorrek gehiago izan?

Err.— Bai, bai, badator garaia. Apiril aldera edo, hasiko naiz berriro semeak sortzen. Horren pozean bizi naiz.

K.— Berorrek nahi duenean sortzen al ditu, bada, semeak? Orain hor sortzen ikusi ditudan guztiak alabak dira.


Err.— Nire erabakiaren arabera sortzen ditut batak zein besteak. Semeak nahi ditudanean gelaxka handietan egiten dut arrautza eta alabak nahi ditudanean gelaxka txikietan. Semeak sortzeko udaberriko loreak ugaldu zain nago, orduan alabak erabat okupaturik egongo baitira lanean eta ez dituzte akabatuko udazkenean egin zuten bezala.

K.— Zergatik sortzen dira arrak gela handietan?

Err.— Handiagoak direlako. Langileek bietatik prestatzen dizkidate eta nire esku dago non errun.

Arraroa dirudi erreginak erabakitzea erle bat arra edo emea izango den; misterioa. Erregina urduri ikusten dut eta bukatzera noa.

K.— Azken galdera, maiestate. Monarkiaren iraupena nola bermatzen da? Nor izango da hurrengo erregina?



Pixabay

Err.— A, neronek baneki! Nire ustez, hil arte izango naiz hemengo erregina. Gero nor jarriko duten? Nire ondoan ez dut printzesarik ikusten. Hainbat aldiz galdetu diet langileei eta «zer edo zer egingo da» erantzuten didate. Langileek daukate horren sekretua. Hiru urte daramatzat hemen eta ez da inongo mugimendurik. Auskalo!

K.— Mila esker maiestate, berorren elkarrizketarengatik. Mundu osora zabalduko dugu hemen entzuna. Berriz etortzeko gogoarekin geratu naiz hemengo berri gehiago jakiteko.

Err.— Nahi duzunean etorri berriro, nire baimena baduzu, baina ahal dela lana gehiegi galarazten ez ibili. Hurren arte. Adi egongo gara zer idazten duzun.

K.— Adio!

Erregina arrautzak errutera itzuli da, langile-multzo batek inguratuta. Ilunpera egin egiten da bat, baina eskerrak atakatik sartzen den argi izpiari, bestela oraindik han nenbilke jira eta bira galduta.